

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Maiatzak 25 65. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



ANDU LERTXUNDI:
"Gure artean ez dago
komunikaziorik"

Saski-naski Lehiaketa
80.000 pta.ko
argazki makina
lkerrentzat!

JMA:
Arrakastaren giltza

A R R A S A T E
K I R O L A K

Kontzeziño 8, ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12

Adi ATBren ikusle!

22.

k a n a l e r a
j o a n g a r a

Bai, zuk hobeto ikus dezazun egin dugu aldaketa hau.

23.kanalean emititzen egon gara orain arte eta, eginahalak egin arren, ezin izan dugu sartzen zitzaigun interferentzia ezabatu.

Horregatik, egin ez baduzu, aldaketa txikitxo eragin beharko diozu zeure aparailuari.

23.kanaletik 22.era pasatu eta kito.

Aurrerantzean askoz ere garbiago ikusiko duzu Arrasate Telebista. Zutaz arduratzen garelako.



ARRASATE PRESS

ASTEKARIA



Nixon, Watergate eta kristalaren kolorea

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1,
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Leguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza

Bego Zubia

Publizitatea eta harpidetak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA Taldea.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eriztien erantzunkizunik.

Ez dakit kristalaren koloreari ja-zoeraren urruntasuna ere ez ote zaion erantsi behar, hainbat bider entzun dugun bezala, eritziaren balorea neurri egokian epaitu ahal izateko. Horixe gertatzen zait orain ere, hamazortzi urte dela mundu zibilizatuaren zerupean eztanda egin zuen lehergailua gogoratzean. Watergate entzutetsuari nagokio; hogetasei hilabetetan zehar "The Washington Post" egunkariko bi kazetarik argitara eman eta iparramerikarrei erakutsitako espioi-istorio eskandalugarria, alegia.

Estatu Batuetako lehendakaria zen Richard Nixon guztiz ahaltsuak hasiera eman zion -ustekabez, ziur aski- bere kargua uztera behartuko zuen eskandaluari. Ez dut uste gertaera hura mendebaleko politikaren zirkuluan inoiz izandako larriena dugunik. Ez deritzait, behintzat; askoz beltzagotzat daukat, esaterako, urte batzuk beranduago Reaganen agindupeko Irangate delakoa. Baina Nixonen kasuan, dudarik gabe, harropuzkeriako maila ulertezinak eraman zuen eskandalua bere azken ondorioetaraino. Bere guztiahalkerian jainko sentitzen zen gizonaren jarrerak eragin zuen sasijainkoaren erorketa.

Sarri, iparramerikar sistemaren kritika egitean, gizarte harek erakutsi ohi digun bertute bat ahazten dugu: giza ustelkeriaren kontrako zorroztasuna. Eta, hain zuzen ere, nolakotasun horrek salatu zuen Watergateren inguruko azpikeria, Nixon presidentea dimiti eraziz. Bost axola, Bob Woodward eta Carl Bernstein kazetariak istorio zikin haren izkutu guztietan zuzen ote zebiltzan ala ez. Eta azpijoko harek suposatu zuen lehendakariaren desprestigio eta, ondorioz, kargu uztea.

Baina, artikulu honen tituluak adierazi nahi duen bezala, historia idatzia optikaren arauerakoa izan ohi da. Ederki froga daiteke hori Richard Nixonen memorietan, izan ere horiek irakurtzean nork ez daki haren amets soila izan ote zen Watergaten jazotakoa ala -denboraren poderioz eta errealitatea aldrebesteko trebetasuna direla eta- Nixon lehendakaria injustizia haundi baten biktima dugun. Nixonek berak argitaratutako liburuaren zenbait partez jabetzean duda horrek gainezka gaitzake. Kristalaren koloreak egia gezur bilaka dezake eta alderantziz.

Josemari Velez de Mendizabal

UGARAN jatetxea

Garagaritza auzoa - 1/797658 Arrasate

**enpresa
bazkariak
eta famili bilerak**



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO

Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atea

Legarreko pabiloi industrialak
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

AURRERATZEKO

SF

AIZKORA

AUTOZERBITZUA

Maalako Errabala, 7. Tfnoa: 79 15 56

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate

Kokoteraino!

Egoera honen aurrean...
Idatzi honen bidez UGT, CCOO eta ELAk ez duten ordezkartza bere gain hartuz Eusko Jaurlaritzarekin sinatu duten estabilitateari buruzko akordio eskasa salatu nahi dugu. Honela azkena jarri diote afektatuen kolektiboarekiko izan dauden jarrera baztertzailerari; ez dituzte inoiz hauen erreinkazioak bere gain hartu, ez dituzte inoiz hauen mobilizazioak bultzatu eta ez dituzte inoiz hauen eriztiak entzun, Eusko Jaurlaritzaren proposamen bakoitzaren aurrean. Horrez gain, une desegokienean izenpetu dute: hain zuzen, astebeteko greba prestatzen ari zenean, Hezkuntza Sailean presio horrek izango zuen eragina itxaron gabe. Azken batean, UGT, CCOO eta ELAk ez dute langile afektatuen atzetik bakarrik jokatu, hauen aurka baizik.

Bergaran elkartutako ordezeko eta interinoek oso eskasa jotzen dugu akordio hau hurrengo arrazoiengaitik:

- Kolektiboa zatitzen duelako, afektatuen erdia (2.000 pertsona) kanpoan geratzen bait dira.
- Ez duelako sarbideez hitzegiten enplegu publikorako hiru eskaintza igaro ondoren, ez duelako funtzionaritarako sarbidea bermatzen, ez bait dugu ziurtatzen oposaketarik deituko denik, ez da plazen kopurua nahikoa izango den pertsona guztiei funtzionaritarako sarbidea zabaltzeko.
- Irakaskuntza publikoan administrazioa eta UGT, CCOO eta ELAren artean sortu den monopolio sindikala finkatzen du, beste gainerako sindikatuak eta Koordinadora baztertuz. Akordio hau 88ko akordioaren menpean gauzatu eta enplegu publikorako batzordea sortzen bait dute.

Deba Bailarako Ordezko eta Interinoen Asanblada

**S. Frantzisko Xabier
ikastolak Alkate jaunari**

Agur t'erdia:
Idazki honen bidez San Frantzisko Xabier Ikastolak zera salatu nahi du:
Ferixalekuko ikastetxea ikasturte honen hasieratik jasaten ari den egoera larriaren aurrean Udal honck agertu duen sentsibilitate eza eta eguneroko sortzen diren arazoekiko indiferentzia.
Hainbat adibide ipini genitzake, baina bakarrik azkenengo biak aipatuko ditugu:

* "Irgalaren" ondoan zeuden kontenedoreak Ikastetxeak duen sarrera bakaurrean jarri dituzte. Gaur goizean ikasle eta irakasleak oztopo berri honekin aurkitu dira Ikastetxean sartzeko.

Hau Udaletxean salatu ondoren, sarrreratik kendu arren, oso gertu utzi dituzte. Pentsatzen dugu ikastetxetik urrunago egon beharko lirakeela, ikasleei suposa diezaiekeen higienarako arriskua kontutan harturik eta ikusita egoera txarrean daudela (taparik gabe).

* Larunbatean izan genuen txingorraren ondorioz, patio estalia eta sarrera uraz beterik agertu da. Inori ez zaio bururatu leku hori zelán egongo zen pensatzea.

Honez gain, zera adierazi nahi dugu:
* Edifizioaren barruan konpontzen ari den gela "multiusos" deritzanarekin, egon den jarraipen eza: agindurik ez zegoelako, margoketa atzeratu egin zen, kristalak ipini eta garbiketaz Ikastola arduratu izan ez balitz, egin barik egongo zatekeen.

* Bukatzeko, gure amorru biziena adierazteaz gain, gauza bakar bat eskatzen dugu:

Hezkuntzarekiko sentikortasun gehiago. Horrelakorik ez dadila berriro gerta, adibidez, laister hasiko den frontoiaren obrarekin.

Besterik gabe, begirunez

*Edurne Erauskin
S. Frantzisko Xabier Ikastolako
zuzendaria*

Jakin ezazu

Ezinezkoa da preso baten egoera lau lerrotan azaltzea, baina memento honetan gertatzen zaionaren berri, bederen, eman nahi genuke.

Jesus M^a Zabartek, Ceutan zegoenean infekzioa zuen. Belarritik zetorkiola esan zion hango medikuak. Handik Puertora ekarri zutenean hemengo medikuak, berriz, ahokoa zuela.

Puertotik Canarietara eraman zuten duela hilabete bat. Familiakoek han zegoela jakin zutenean, zeukan infekzioaz arduraturik, Canarietako gizarte-laguntzailearekin hitz egin zuten telefonoz, tratamendurik jarri zioten jakiteko. Honek baietz esan zien, tratamendua jarri ziotela eta luzerako zela.

Jesus Marirengana joan direnean jakin dute familiarek, ez diotela inolako tratamendurik jarri, eta ez daukala inongo atentziorik bere infekzioa dela eta.

la hortz guztiak atera dizkiote eta pure batzuk besterik ezin du jan.


Presoen lagunak

Arropatan diru asko gastatzen al duzu?




Mari Karmen Zubillaga
(langilea)

Nik neuk ez. Jazteari ez diot garrantzi handirik ematen eta behar dudana baino ez dut erosten.



Gorka Sudupe
(ikaslea)

Nire esku balego, ez nuke diru handirik gastatuko. Gustatzen zaidana jazten ahalegintzen naiz, besteek esango dutenari jaramonik egin barik.



Luis Sagasta
(langilea)

Nik ez. Egia esan, ni ez naiz dendantan ibiltzen, emazteak erosten didana horixe jazten dut.




Juanita
(etxekoandrea)

Oso gutxirekin konpontzen naiz. Edozein modutan, jendea gauza hauetaz gero eta gehiago arduratzen dela uste dut.

LENIZ

AUTO ESKOLA



BADAUKAGU AUTOBUSA!!!

ARRASATE - ESKORATZA

**ARRASATE
PRESS**

77 05 65

KOPIOTXOA

*Fotokopiak
Planu-Erreproduzioak
Enkuadernazioak*

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

Memesa

79 42 22

URRIN

Urbarri Etorbidea 22, Tfnoa: 79 95 24

**KAZOLATAN
ESPEZIALISTAK**




**BELUN
taberna**

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

BEHARREZKO TELEFONOAK



ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZANTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
--	----------

25 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "El sueño del mono loco" 7 eta 9.30etan. Novedades: "Pesadilla en Elm Street" 10.30etan.
- Hitzaldia: "Andaluziako historia" gaiaren inguruan Jesus Tizcar-en eskutik. Monterronen, arratsaldeko 7etan.
- Antzerkia: Maskarada taldeak, "Akelarru" lana antzeztuko du Bergarako Martin Deunaren enparantzan, gaueko 10.30etan.
- Antzerkia: Geroa taldeak, "Ertzaina al Pil Pil" antzeslana eskainiko du Eskoriatzako frontoian, gaueko 10etan.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales. San Andres.

26 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Tiempos de gloria" 5, 7.30 eta 10.30etan. Novedades: "Pesadilla en Elm Street" 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Andaluziako folklore jaialdia. Amaia antzokian, gaueko 10etan.
- Goleka taldeak "Maniki transformazioa" lana eskainiko du, Bergarako Martin Deunaren enparantzan, Bergaran eguerdiko 1etan.
- Kukubiitxo taldearen emanaldia: "Umeak gara eta zer" lana ikusteko aukera, Martin D. Enparantzan, arratsaldeko 6etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

27 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Tiempos de gloria" 5, 7.30 eta 10.30etan. Novedades: "Tiempos de gloria" 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Andaluziako folklore jaialdia. Aretxabaletako Zazpita zineman.
- Goardiako farmazia: S. Español. Iturriotz.

28 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Tiempos de gloria" 7

eta 9.30etan. Novedades: "Tiempos de gloria" 7.30etan.

- Zine dokumentala: "Millones de años de adelanto", "Elsi Giaugue" eta "Por la Ucrania Sovietica". Amaia antzokian, arratsaldeko 7.30etan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

29 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Tiempos de gloria" 7 eta 9.30etan.
- Zine dokumentala: "Los secretos de los mosaicos", "Bruno Müller", "Melodías de Siberia" eta "Conservando las huellas del pasado". Amaia antzokian arratsaldeko 7.30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

30 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: Ez dago emanaldirik.
- Zine dokumentala: "Ese impulso maravilloso", "Mosaicos musicales de Rusia", "Museos y jardines de Lisboa" eta "Visita a los museos y salas de exposición de la URSS". Amaia antzokian, arratsaldeko 7.30etan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Sta. Marna.

31 OSTEGUNA

- Zinea: Alai: "Un toque de infidelidad" 7 eta 9.30etan.
- Zine dokumentala: "Ciudades del norte de Rusia", "Wilfried Moser" eta "Antílopes en Ein Guedi". Amaia antzokian, arratsaldeko 7.30etan.
- Arrasateko liburutegian, "ipuin ordua". Pello Añorga idazlearekin. Arratsaldeko 5etan. Haur txiki eta gurasoentzat.
- Euskal Egunkariaren aldeko kanpaina antolatzeke bilera. Monterronen, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Madalena.

ERAKUSKETAK

• **Gloria Saez Tobiaren** oleoak eta kuadroak ikusgai, Monterron aretoan. Astegunetan, arratsaldeko 6etatik 8etara eta asteburuetan, 12 etatik 2etara eta 6etatik 8etara. • **Imanol Morenoren**, grabatu eta pintura erakusketa. Etxe Aundin, hilabete honetan zehar.

IKASTAROAK

• **Taila ikastaroa**. Uriburu kaleko tailerrean maiatzaren 28tik uztailaren erdirarte. Hasiera eta hurrengo mailak. Ikastaroa 30 ordukoa izango da. Izen ematea eta argibide gehiago 79 40 79 (Felix), 79 21 05 (Xanti)



SAN VIATOR IKASTOLA 1990-91 IKASTURTEA

Batxilergorako aurrematrikula egiteko epea zabaldu dugu: maiatzaren 15etik 30era

✓ **ESKAINITZA ZABALA BATXILERGOAN**

- Batxilergo Orokorra (1. eta 2. mailak)
- Goi Batxilergoa (3. eta 4. mailak)

✓ **LANBIDE MODULOAK (Berria)**

- Bizigiro Osasunezko Lanbide Moduloa

✓ **EZAUGARRIAK**


- Maila guztietan euskarazko eta erdarazko adarrak.
- Batxilergo Orokorrean adar elebiduna.
- Kirol Eskola: era guztietako kirolak, monitore bereziturekin
- Jantokia.
- Orientazio prozesu jarraitu eta sakona.
- Erreforma prozesuan aintzindari.

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA: GOIZEKO 8etatik ARRATSALDEKO 7.30etara

"Euskal Herriko Ikastolarik gazteena"

1.500 pta.gatik (afari merke bat)
1991ren bukaerako 6 zenbaki
euskararen egoera sozialaz
Jazten joateko
ANIMA ZAITEZ!

Jazten



✂

Izen abizenak.....
 Helbidea
 Herria Tfnoa
 Banku edo Aurrezki Kutxa zenbakia

Sinadura

Bidali harpidedun txartel hau Arrasateko 158 Postakutxara



“Euskal zineak baditu bere bohemiak, Donostian bertan bi aintzindari: Daniel Trepiana eta Jon Belar. Aktoreak eta pintoreak dira biak. Okendo kalean dagoen Tanger tabernan ibiltzen dira bi bohemiok hauek sarritan. Jon Belar askotan ikus daitezke Colchonerian ere. Duela gutxi berak protagonizatu zuen “El reino de Victor” filme laburrari Goya Saria eman diote, urteko laburmetrairik onenaren gisan”.

(Paco Aristik, DVko Zabaliken)

“Oraindik ere erabaki, gestionatzeko gauza asko dago, eta herri eta instituzioen aldetik ibili beharreko bide luzea. Arrasate ez da suspentsoekin ohitutako herria, ezta erronka garrantzitsuen aurrean etsi egiten duen horietakoa ere. Horregatik, erabakitzeke dagoen gai hau arrakastaz eta aurki gaintzea espero dugu, historikoki eta kulturalki denok ikutzen bait gaitu, fededunak eta ez-fededunak.

Zeren eta, Hirugune Zaharreko kaleak konpondu eta adokinatuta ondoren, Udaletxeari behar zuen itxura eman ondoren, Hirugune Zaharra birmoldatzeko planarekin, Arrasateko edifiziorik zaharrena eta garrantzitsua birmoldatzeko ordua heldu bait da: bere parroki eliza, Juan Bataiatzailearen Eliz Parrokia”.

(J.M. Astigarraga, Arrasateko Parrokoak DV egunkarian)


Ez da batere arraroa euskaldun izan eta Katalunian bizitzea. Hemen, bakoitzak bere izakerari eusten dio, eta inork ez zaitu behartzen zurea ez den hizkuntza erabiltzera.

(...)Halere, Bartzelonara etortzea nere bizitzan hartu dudana erabakirik zailena izan zen. Eskaintza ederra egin zidaten, baina asko eta asko pentsatu behar izan nuen onartu aurretik”.

(Andoni Zubizarretak, El Sol egunkarian)

Zein helbururekin kaleratu duzue *Jazten* aldizkaria?

Beno, guk nolabait material falta zegoela somatu genuen eta zegoen hutsunea betetzeko asmoz kaleratu dugu *Jazten*. Beste herrialde batzuetan, Valentzian edo Katalunian askoz ere aurrera-



tuago daude gai honetan. Gure asmoa, material didaktiko samarra kaleratzea izan da. Euskararen inguruan zerbait irakurtzen duen jendeari —eta kezka duen jendea egon badago— argumentu batzuk azaltzea, arrazoi batzuk ematea izan da. Nolabait jendeak bere buruan dituen kezkei argumentu batzuk ematera etorri gara. Baina guzti horiek modu errazean eman nahi ditugu. *Jakin* eta beste hainbat aldizkaritan badaude materialak, baina oso oso materiale luzeak eta espezializatuak izaten dira kasu askotan, nahiz eta tartean dagoen didaktikoak ere egon.

Jazten aldizkariak, sakontasunean galduko duena ulergarritasunean irabazten badu, ez dugu inolako kezarik izango. Gure asmoa ez da sakontzea, horrelako gaien inguruan eztabaida sortzea baizik.

Aldizkaria ez dago gai honen inguruan ikerketak egiten ari direnei zuzendua, gai honen inguruan kezka bat dutenei baizik.

Arazoa da, euskaraz oso gutxi dagoela eta gurea bezalako aldizkariak hutsune bat betetzera datoz, baina jende arituak *Jazten*-en ez du beste munduko gauzarik aurkituko. Informazio orokorra eskainiko dugu gehien bat.

Julen Arejolaleiba
Jazten aldizkariaren zuzendaria

AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES



IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

Zine Dokumentala Amaian

Maiatzaren 28tik ekainaren 1era

Arrasateko Udala eta Aurrezki Kutxa Munizipalak antolatuta, zine dokumental zikloa izango da Arrasaten maiatzaren 28tik ekainaren 1era. Guztira ha, azazpi dokumental ikusteko aukera izango da. Gai oso ezberdinak jorratuko dira, Hego Amerika edo Siberiako zenbait gai edo *Elsi Giauqueren* bizitza eza-gutzeko aukera izango da.

Saio guztiak Amaia antzokian eskainiko dira, arratsaldeko 7.30etan hasita. Sarrerak doan.

Kultura eta bizitza ezberdinak eza-gutzeko aukera ederra izango dugu beraz, bost egunetan zehar.



■ Gloria Saez Tobiaren erakusketa

Maiatzaren 25era arte, Monterroneko erakusketa aretoan, Gloria Saez Tobiaren oleo eta kuadroak ikusteko aukera izango dugu.

Erakusketa astegunetan arratsaldez eta asteburuetan goiz eta arratsaldez egongo da irekita.

Erakusketako lanak, paisaia, bodegoi eta pertsonen erretratoak dira gehien bat.

■ Haur Kantarien Txapelketa

Larunbatean Donibane Lohitzunen izango da Euskal Herriko Haur Kantarien Txapelketaren finala. Saioan, Arrasateko hiru taldek hartuko du parte. S. X. Ikastolako Txorrotxio eta S. Viatorreko Ortzadar eta Ipotxak taldeek.




Besaideko monumentu berria

Joshin Ogata, Italian bizi den eskultore japoniarra, hasi da jadanik Iraileko hirugarren igandean Besaiden inauguratuko den eskultura lantzen Udalan.

Oraingoz Markinatik ekarritako 12 marmol harritzarrekin hasi da lanean. Denetara 26 hari izango dira.

Besaideko monumentua eta inguruetan egingo diren lanak 30 milioiko kostua izango dute. Joshin Ogata maiatzaren amaiera arte izango da Arrasaten. Ekaina Italian eman ondoren, uztailean itzuli egingo da, monumentua inauguratu arte.


FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



PEÑACOBA
Auto-Eskola

Zarugalde 46,
79 14 01

ARRASATE

ORTZI erretegia

Angiozar auzoa

Tfnoa: 76 22 68

BERGARA



R. Leturia, J. Mongelos, Herrasti, J. Catania eta P. Mendieta

Fagorrek 75.000 milioi saldu iaz

Esportazioek %10ean egin zuten gora 1989an

Fagor kooperatiba elkarteak 1989ko ekitaldiari dagozkion datuak eman ditu ezagutzera aste honetan, Estadu eta erbesteko komunikabide askoren aurrean, bulego zentraletan, eman zuen prentasurrekoan.

Ekitaldian, Jabier Mongelos, taldeko zuzendari orokorrak, 1989ko ihardueraren sintesia egin zuen, produkzio sail bakoitza aipatuz. Taldearen salmentak 75.000 milioi pta.ra ailegatu ziren iaz, aurreko urtea baino %16a gehiago. Inbertsioak 6.000 milioitara iritsi ziren.

Fagorrek Espainian egin zituen salmentek %18an egin dute gora eta gauza bera esan daiteke esportazioarekin %10a egin zuten eta, gora. Alor honetan daturik aipagarriena da Injinerutza eta Ekipo-Ondasuneko sailak %81ean gehitu dituela esportazioak.

Aipatzekoa, halaber, Fagor Taldeak Ikerketa eta Garapenari eskaintzen dien garrantzia, iaz 2.500 milioi pta, hau da, salmenta guztien %3a pasata.

Jesus Catania, kontsumo Osagaien Saileko zuzendariak Fagorreko linea zurian errekonbertsioa amaitu dela aipatu zuen. Fagorren errekonbertsioa nahiko ondo egin dela azalduz. Orain kanpo merkatuetan lehiatzeko askoz hobeto omen dago Fagor.

Rafael Leturia eta Pedro Mendieta ere hitza hartu zuten, lehenengoak Inidustri Osagaietako Sailari erreposoa emanez eta bigarrenak Injinerutza eta Ekipo-Ondasunek izan dituzten gorabeherak aipatuz.

Luzuriaga enpresari buruz Leturiak Pasaia, Usurbil eta Tafallako planten jarraipena planteatu zuen.

■ **S. F. Xabier ikastolan jangela**
Datorren ikasturtetik hasita, urrian hain zuzen, S. Frantzisko Xabier ikastolak ehun pertsonentzako tokia izango duten bi jangela irekiko ditu Uribarri auzoan.

Bertan ikasle, irakasle zein ikasle-leen familiartekoez bazkaldu ahal izango dute. Klase-egunez gain, jangelak oraindik zehaztugabeko zenbait egunetan ere zabalik egongo dira. Bazkariak propio kontratatutako sukaldari batek prestatuko ditu.

Jangela ondoan liburutegia ipini-ko dute, liburuez gain bazkaltiarrek egunkariak eta aldizkariak irakutze-ko aukera izan dezaten.

■ Eskifaia Abesbatza

Ekainaren 2an Hondarribiko Eskifaia Abesbatzak kontzertua eskainiko du Arrasateko Juan Bataiatzailearen parrokiari, gaueko 20.45etan. Ekitaldia Goikobalu abesbatzak antolatu du.

■ Maiatzeko festak Santa Agedan

Aste honetan hasi eta ekainaren 1era arte Santa Agedako Aita Meni Ospitale Psikiatrikoan "Maiatzeko festak 90" ospatuko dituzte.

Festa hauekin kutur eta jai ekin-tzen bidez gaisoek egunerokotasu-narekin apurtzea lortu nahi da.

■ Nortasun agiriak atera eta berrizteko

Eibarko komisaldegitik Arrasateko Udalarari jakin arazi zaionez, ekainaren azkenetan hasita, hama-bostean behin bi egunez etorriko dira hainbat funtzionari, arrasatearrok NANak atera edo berrizta ditza-gun. Non egongo diren erabakitzeke dago.



**Arrasateko
jatetxea**

Olarte kantoia 3,
Tfnoa: 79 84 53

**KIROLDEGI
JATETXEA**

EGUNEKO MENUA

ETA KARTA

Musakola Auzoa. 79 82 31



Nafarroa Etorbideko biztanleak kexu dira

Udalak *Gelma* espedientatu

Enpresak filtrazio sistema berria iragarri

Arrasateko Udalak Gelma enpresaren espediente Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro sailari bidaltzea erabaki du. Gelmari jaurtitzen duen kearen txostena aurkezteko eskatu zion Udalak eta honek eskatutakoa bete ez duenez, Udalak Jaurlaritzari espediente zabaltzeko eskatzea erabaki du.

Espedientearekin batera, Udalak, gutxienez milioi bat pezetako isuna jartzea eskatu dio Jaurlaritzari.

Donostiako Entzutegiko fiskal nagusiari gertaeren berri ere emango dio, enpresaren jokabideak delituri duen azter dezan.

Gelmak bere aldetik, inbertsio berriak iragarri ditu abuzturako, fundiziotik ateratzen diren gai kutsakorrek hobeto filtratzeko.

Gelmak dioenez, fundizioan sortzen den hautsa orain arte erabilitako

metodoen arabera filtratzea oso zaila da. Hori ikusita, filtro sistema berria jartzea erabaki du abuztuan. Sistema berri honetan 28 milioi inbertituko dituzte. Dena den, proiektua 1991.eko erdialdean amaituko da, denetara 150 milioi pta. gastatuko dituelarik.

Aldameneko zenbait auzotarrek izan dituen gorabeherak direla eta, Gelmak herrian berak baino kutsadura handiagoa eragiten duten beste hiru enprekin inor ez sartzea ez duela ulertzen azaldu du. Aurretanzean enpresak guardia juradoak kontratatuko omen ditu eta bertara zaborrak botatzen dituztenak auzitegira eramateko prest dagoela gaineratu du. Gogoratu, auzokideak zaborrak botatzen dituztela, enpresak jaurtitzen duen hautsaren ondorioz jasaten duten egoera salatzen.

Usteak uste...

Ehundaka urtetan euskaldunok ez gara egunkaririk xumeena ere euskaraz egiteko gauza izan. Badirudi orain, elektronika aroan, baietz, bat ez, bi ere egiteko gai garela erakutsi nahi diogula geuri buruari. Kosta ala kosta, horretarako biak popatik hartzera badoaz ere.

Egunkaria euskaraz egiteko bi egitasmo egotea txarra da, akaso? Berez ez, egoera normalean esan nahi dut, eta gehiago egongo balira hainbat hobeto. Baina geurea ez da egoera normala: gutxi gara (edo asko, nola begiratzten den, izan ere balizko milioi erdi irakurleak ez bait dira azaren azpiko orria), ez dugu euskaraz irakurtzeko ohiturarik, bai, eta errotua, prentsa erdaraz irakurtzekoa, ezpiegitura eskasa dugu, etabar luzea, luzezia gauza onerako.

Guzti honek euskal egunkariak defizit gogorrak izango lituzkeela esan nahi du. Defizit horiek diru pribatuak estaliko balitu, gaitzerdi, baina, kia, denok ama Administrazio Publikoari eskatuko diogu zuloak tapatzea eta hor dago koxka. Zulo bakarra gutxi balitz, bi zulo estaltzea exijituko diogu.

Azkenean igoyal merkatua osatzen duen euskal irakurlegoaren erabakiaren zain gelditu beharko gara, baina zalantza egiten dut merkatuaren berediktoa onartzeko gauza izango garen, beste behin elkarri trastoak jaurtitzen ibili barik.

Joxe Aranzabal

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,
Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



Zunbeltz

Simon Arrieta Enparantza 2,
BERGARA



Imanol Murua Bolibarko depositoan ur-sarea inauguratzen.

Urkuluko urak Eskoriatzara

Aste honetan ofizialki inauguratu ur-sare berria

Asteazken eguerdiz inauguratu zen ofizialki Urkuluko urtegitik Eskoriatzara urak eramateko sarea. Ekitaldian, Eskoriatzako Udaletxe-ko ordezkariak gain, Imanol Murua Diputatu Nagusiak, Julen Goikoe-
txeak, Hirigintza eta Garraioetarako diputatuak eta Jose Manuel Billar diputatuak hartu zuten parte.

Ekitaldian parte hartu zutenek, Eskoriatzako Udaletxean bildu ondoren, Urkuluko urtegitiko instalazioak bisitatu zituzten. Ondoren, Bolibar auzoan dagoen depositoan ur sarea ofizialki inauguratu zuten.

Urkuluko urtegiak, 10.000.000 m³ ur gorde dezake. Urkulutik Aretxabaleta, Bergara, Arrasate eta Eskoriatzak hartzen dute ura. Etorkizun-ean, Soraluze, Elgeta eta Oñatik ere hartuko dute ura urtegitik.

Ura Urkulun garbitu eta gero, ponpatu egin behar da, Eskoriatza Urkulu baino garaiera handiagoan bait dago eta hodi sare baten bidez eramaten da.

Urkulutik jasotako Urak Bolibar eta Zelaitxuetako depositoetan bilduko dituzte. Depositoetan, ura neurtzeko zenbait tresna jarri dira.

AEDren Udaleku Irekiak

Aurten ere, AED elkarteak uztai-lean Udaleku irekiak antolatuko ditu eta dagoeneko izen emate epea zabalik dago. Udalekuek Arrasateko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Al-
dundiaren laguntza izango dute. Bi txanda egingo dira, lehenengoa uz-
tailaren bitik hamahirura eta biga-
rrena 16tik 27ra, asteburuak salbu. Txanda bakoitzean ez dira 250 plaza baino gehiago onartuko.

Plenoa atzeratu

Gaur izan behar zen Arrasate Musikalen etorkizuna erabakitzeko Udal plenoa, atzeratu egin da hila-
ren 31 arte, alderdi politiko ezberdi-
nak ados jarri ez direlako.

JAIOTZAK

Aguado Bejarano, *Amaia*. Maiatzaren 11an.
Rodriguez Barbero, *Julen*. 13an.
Olabe Martin, *Ane Miren*. 14an
Rico Rojas, *Sara*. 14an.
Arizmendiarieta Torres, *Unai*. 16an.
Achaga Perea, *Aritz*. 16an.
Martin Corbo, *Ainara*. 17an.

EZKONTZAK

Juan M^e Ariznabarreta Garcia & M^e Cruz Mujika Bideburu. Maiatzaren 19an. Zibilez.
Francisco Cimber & M^e Yolanda Angulo San Martin. Maiatzaren 19an. Elizaz.
Luis Martin Juarez & Ines Garcia Leon. 19an. Zibilez.
Luis Vicente Martinez Barral & Silvia M^e Dacounceicao de Carbalho. 19an zibilez.



NUTRISAN

NUTRIZIO, OSASUN ETA KIROL MENDIKUNTZAKO ZENTRU MEDIKOA.

Zatoz gugana, amesten duzun gorpuzkera berreskuratu eta behin betirako mantentzeko.

- Dieta pertsonalatuak eta azterketa metabolikoak
- Zelulitiaren tratamendu medikua.
- "Kirol-gimnasiako" mahaia.
- Elektroeskultura.

Arduradunak:

Telleria Dka., Serrano Dka. eta El Busto Dka.
(Dietetika eta Nutrizioa Bordeleko Unibertsitatea)

Kale Aldea 11, etxabea, Arrasate Tfnoa: 79 65 78

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio golzitarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotritzitatea eta hizkun berreziera)
- * Logopedia
- * Laguntza terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10,

ARRASATE TFNOA: 79 48 77

SASKI-NASKI

lehiaketa

Asteroko sariak



KOLTA

Aranzabal Akobe
elektrogailuak

IRRATI-
IRATZARGAILUA



OKIENDO
KIROLAK

ZAPATILAK



MELIA BIDAIAK

Etxe Aundi jatetxea



AFARI BAT
BI LAGUNENTZAT

Ikatz
argazki etxea



ARGAZKI MAKINA
AUTOMATIKOA

Hileko sari handia



SAN JUANETAN
ASTEBETEKO
EGONALDIA
MALLORCAN
(24etik 1era)

ASTE HONETAKO
SARITUAK

BEÑAT MADINA
Irrati-iratzargailua

KLAUDIO GARRO
Bi lagunentzako afaria

IHINTZ BERISTANI
Kirol zapatilak

ITXARO LEIBAR
Argazki makina


Galdera:

Nork aurkezten du Mondra Sport?

Erantzuna:

Izen-deiturak:

Helbidea: Adina: Tlfnoa:



Arrasaten aurten 18 atestatu

Arrasateko Ertzaintzak urteko balantzea egin

Arrasateko Ertzaintzak aurten salaketek eraginda egindako atestatuen berri eman du. 18 dira denetara egin diren atestatuak. Horietatik, %89a lapurretak dira. Beste kasu biak droga trafikoa eta txeke faltsifikazioaz dute zerikusirik.

Lapurreta gehienak dendetan eman dira, gutxi batzuk tabernetan eta banakak kalean edo etxebizitza partikularretan. Instituzioak ere lapurren biktima izan dira, hala nola, Abadetxea, Eskola Politeknikoa, Casa del Pueblo eta Iturbide egoitza.

18 atestatu hauetan 27 pertsona atxilotu ditu Ertzaintzak, baina zenbait kasutan pertsonak errepikatu egiten dira. Horrelakoetan Ertzaintzak Bergarako Auzitegira eramaten ditu ustezko lapurrak eta epaileak ostutakoa kopuru txikia dela uste badu, kalean uzten ditu berriro.

F.J.L.G. "El Rata" deitutako gaztea da Martuteneko espetxean dagoen bakarra, 40tik gorako kasu dituela epaitzeko zain. G.B.V. "El Gollito" gazteari bestalde, 27 inguru lapurreta leporatzen diote.

Andaluziaz Kultur Astea

"Al Andalus" elkarteak, Andaluziako astea, egiten ari da aste honetan.

Gaur Jesus Tizcar-ek Andaluziaren historiari buruzko hitzaldia emango du Monterronen, arratsaldeko 7etan. Bihar berri, Andaluziako folklore-jaialdia izango da Amaia antzokian. "Kantaore" eta kitarra-joleez gain, hantxe izango da, Gasteizko "Raices del Sur" taldea. Dena den, jaialdi zabala egiteko asmotan dabiltza, Euskal Herri eta Extremadurako folkloreei ere beraien unetxoak gordeaz.

Igandean, "Misa Rociera" delakoa egingo dute San Juan parrokian, eguerdiko 12etan. Meza benetan berezia, non "Kantaore", "Bailaore" etab.ek hartuko duten parte.

Andaluzen ohitura eta berezko ezaugarriak berreskuratzea da "Al Andalus" elkartearen asmoa.



BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABALETA

URONDO
elektrizitatea



- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

VE ECUADOR


Kontzesifto 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

L ARRANGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



S. Agedako bidea konponduko

Udala uztailaren 5erako betiko Udaletxean

Azken Gorbenu Batzordean jakin zenez, Diputazioa prest dago Ospitale ondotik saihebiderraino doan errepide tarte egokitzeko. Lan horiek saihebiderea trafikoari ireki eta gero egingo dira, haren inaugurazioa gehiago ez atzeratzearren.

Arrasatetik Aramaiora doan errepidea hobetzeko konpromezua ere hartu du Gipuzkoako Diputazioak. Garagartzatik Arabako mugaraino doan errepide tarte estu hori zabaldu eta hobetzea da helburua. Ondo egin nahi izanez gero, diru dexente balio-

ko duen proiektua.

Udaletxe zaharrari dagokionez, azkenik, Udal idazkaritzak txostena aurkeztu zuen, oraingo Udaletxetik berriztura egingo diren aldatze lanak zehaztuz. Udaletxe zaharreko obrak ekainaren batean amaituko dira. Edifizioa ondo garbitu eta altzariak sartu ondoren, ekainaren 20an, S. Juanak baino lau egun lehenago, Udaltzaingoa Udaletxe berriztura joango da eta uztailaren 5ean Udalarren gainerako dependenziak pasatuko dira plaza ondoko eraikuntzara.

■ Enplegua sustatzeko programa

Aurtengo enplegua sustatzeko programan Arrasateri 31 lanpostu onartu zaizkio, hau da, eskatutakoak baino 5 gutxiago. IMIrako 4 monitorea atzera bota dira, elektronikaren alorrerako ba omen daudelako beste eratako dirulaguntzak. Obra-ikuskarriarena ere ez da onartu, era horretarako lanpostuak edozein Udalen ohizko ihardueran sortu behar dela uste dutelako. Hasierako egitasmoaren arabera Arrasateri 51 lanpostu zegozkion baina Udalak 36 eskatzea erabaki zuen.

■ E. Trenbideetan doan

Gizarte eta Ongizateko Udal bulegoetan Eusko Trenbideetan doan bidaiatzeko paseak berritzatzeko inprimakiak daude.

Eskariak aurkezteko epea hil honen 30ean bukatzen da. Beraz, herriko jubilatuek eta pentsionistek lehenbailehen Ongizate bulegoetara hurbiltzeko eskatzen zaie.

■ Modelo bila

"Mambo 1" taldea modelo desfile baterako jende bila ari da. 18 eta 30 urte bitarteko jendea nahi dute, gutxienez 1,60ko altuera izango duten neskak eta 1,75eko mutilak. Informazio gehiagorako Musakolako saloira jo, arratsaldeko 7etatik 9.30ak bitartean.

**INDUSTRIA ETA AUTOMOZIOTAKO
LABAINGARRIAK BERE INSTALAZIO BERRIETAN**

Kataideko Industrialdea 1 eta 2
Musakola z/g 51 postakutxa. Tfnoa: 79 46 33 /78 Faxes: 798411 ARRASATE

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako
klase bereziak


Otalora 25, Tfnoa: 79 88 56

KAJI TABELA

**erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27**



Asteartean, maiatzaren 22a, berrogeitamar urte bete ziren **Rafael Ansoategi** eta **Gregoria F. Arroiabe** San Juan parrokian ezkondu zirenetik. Orduetik Gozamendi baserrian bizi izan dira, Anbulategiaren atzekaldean, senidez inguratutik. Urrezko ezta haiek ospatzeko, Arantzazura hurbilduko dira larunbat eguerdian, meza entzun eta Zelai Zabal jatetxean bapo bazkaltzera. Zorionak bikoteari, eta urte askotarako!



Pasa den ostegunean, Gasteizko Txagorritxu ospitaleko **odol bankuko unitate mugikorra** hurbildu zen Arrasatera, nahi zutenek odola eman zezaten. Bakoitzaren osasun egoera aztertu ondoren, xiringa sartu eta horra non atera zieten hain beharrezkoa den odola. Eskertzekoa ere bada, gero, hainbeste arrasatear lagun-hurkoagatikedozer egiteko prest aurkitzea!



◀ Maiatzarekin batera, aurtengo **lehen jaunartzeak** iritsi zaizkigu. Joan den igandean S. Frantzisko eliza leporaino bete zen 12.30etako mezan, hogeitasei neska-mutiko hauen lehen jaunartzerako. Meza ostean opariak eta oturuntzak heldu ziren.


AHIZKE

AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECEIko kidea
Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana	Haurrak	Maila guztiak
Frantsesa	Gazteak	Azterketarako prestakuntza
Ingelesa	Helduak	Ohizko ikastaroak eta trinkoak
Enpresak		

Araba Etorbidea 4, tfnua: 79 01 32 ARRASATE




ETXE-AUNDI
Dastapen-menua
ekainaren 1erako

- Meloi-zuku hotza otarrainskekin
- Ahate-konfitearen entsalada epela perretxikoekin
- Txahal-solomoa espinaka gainean Rossini saltsaz
- Errekako amorraina ziapere sabaionez eta piper muturtxodunen saltsa
- Gaztanbera eta irasagarrezko tarta, almendrakonpotaz.

2.900 pztza BEZ barne

Torre Auzo 9, Tfnua: 78 19 56
OÑATI



◀ *Saski Naski lehiaketaren barruan ere, gogoratu hilean behin antolatzaileek sari handia ematen dutela. Honako honetan Ikatz dendaren txanda izan genuen. 80.000 pta.ko Reflex argazki-makina ederra eskaini zuten Ikatz-ekoek, eta irabazlea, argazkian agertzen den Iker Uribetxebarria. Zorionak!*

izen propioak

■ *Antton Markaide, 51, arrasatearra, Donostiako Victoria Eugenia antzokian ekitaldia izan zuen bere Otxotea-rekin. Antton, Ayeteko Eliz barrutiko parrokoa da. Arrasateko Ikastolan 10 urtez ari izan zen lanean eta besteak beste, zuzendaria izan zen. Abadetza ikasketak egin ondoren, Haur Psikologia eta Musika ikasketak egin zituen.*

■ *Javier Ortega, 59, bilbotarra, Arrasateko Udalak Ferialeko pilotalekuaren lanen zuzendari izehdatu du. Javierrek arkitekto ikasketak egin zituen eta beti ari izan da arkitektu lanetan. Beste lan batzuren artean Lankide Arrrezki Kutxaren eraikuntza guztiak egin ditu.*

■ *Jose Antonio Gay, 19, arrasatearra, Espainiako Txapelketa Unibertsitarioan, 200 metroko lasterketan, urrezko domina irabazi zuen. Jose Antoniok sari ugari irabazi ditu lasterketa desberdinetan. Geografia eta Historia ikasten ari da Gasteizen.*

Saski Naski sariketarak arrakasta itzelaz jarraitzen du aurrera. Argazkian, pasaden asteko irabazleak ikusten dituzue. Okendo Kirolak-en zapatilak Aitor Bollonentzat izan ziren; Etxe Aundiren afaria Ainhoa Yusterentzat; Aranzabalen esku-aspiragailua Olatz Aranzabalentzat; eta Ikatz-en argazki-makina, osera, Edurne Unzuetaentzat. Besteok, adi luzatutako galderei! ▶



AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilen aseguruia doan

Kontzesiño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

JMA, ezohizko Elkarte Anonimoa

A. Altunak 1942an eraikitako enpresa, orain giltzagintzaren puntan

Arrasate ospe handiko herria dugu mundu zabalean. Eta seguruenik kooperatiben esperientziak badu horretan zeresanik.

Mondragoe, ordea, ez da horretara mugatzen. Enpresaren munduan bertan, bilatu, eta beste historia asko aurki daitezke arrakastaz josiak. Gora eta gora.

Horren adibidetzat, JMA ekarri nahi izan dugu txoko honetara. Duela berrogeitazortzi urte Alejandro Altunak eraikitako tailerra, gaur egun munduko onenetarikoa dugu bere arloan, giltzagintzaren arloan, hain zuzen ere.



Bulego teknikoan ematen zaio hasiera prozesuari. Ordenadoreak, goi-mailako teknologia

1942a. Alejandro Altunak, hiruzpalau langile hartu eta giltzagintzaren munduari ekin zion Ferixalekuko solairu txiki batean.

Duela hogeitazortzi urte, Alejandroren bi semeek, Jose Mari eta Jose Antoniok hartu zuten negozioa, eta Bidekurtzeta kalean pabilioi berria ireki.

Sortu zenetik, enpresak gora eta gora egin du.

Jose Mari eta Jose Antonio, dagoeneko hasiak dira erretiroan pentsatzen. Hori dela eta, gaur egun Jesus Maria Insunza gerente berriak darama enpresaren pixua, geroz eta nabariago.

650.000 giltza egunero

1986an JMAk berrogeitamaika langile zituen; 1989an, oster, laurogeitabost dira jadanik.

Altzairu, aluminio, latoi eta alpakaz eginiko giltzak lantzen dituzte katean. Guztira, 3.000 modelo.

Bulego teknikoan ematen zaio hasiera prozesuari, ordenadorez egindako diseinuekin. Ondoren, xafak trokelatzetik hasi, eta pausu

ugari ematen dira tartean, nikelatu eta biltegia eraman arte.

Estatu Espainolean, giltza merkaturaren %98a hornitzen du JMAk. Horrez gain EEE, Iparrafrika, Erta-merika eta beste leku askotara esportatzen dituzte euren produktuak.

Aipatzekoa da munduko giltzagintza rankingean hirugarren postua

eskuratu dutela, Ilko (EEBB) eta Silma (Italia), aurretik daudelarik. Kontuak kontu, postu horri eusteko JMAk 650.000 giltza egiten dituzte egunero.

Sekretua non dagoen

Arrakastaren gakoa bilatzera joanez gero, arduradunen hitzetan kalitate eta prezioaren konbinaketa dugu funtsa.

Horrez gain, inbertsio kopuru handiak aipatu behar. Ikerketa ugari egin ondoren, gaur egun sekzio guztiak goi-mailako teknologian oinarritzen dira.

Beti ere harreman sendoak eduki dituzte *Lantek*, *Ikerlan* eta *Saiolankin*; katean puntako makinaria sartzeko orduan, kontuan hartu izan dira hauen aholkuak.

Azkenik, langileak. Altuna anaiak, On Jose Maria Arizmendiarrietaren izpirituari eutsiz, beti saiatu dira ahal den neurrian langileek proiektua bere egin dezaten.

Etorkizunari begira

Enpresa guztien ezaugarria dugu egunetik egunera merkatu zabala-goan mugitzen saiatzea. Dagoenari ondo eutsi, eta esparru berriak ireki.

"Kalitatea, prezioa, goi-mailako teknologia eta langileen izpiritua, arrakastaren funtsean"

JMAk produktuak Iparramerikan saltzen hasi nahiko luke. Era berean, Ekialdeko Europa merkatu oparoa bihur daiteke.

Erronka berri horiei aurre egiteko, orain arteko pabilioia zaharkituegia zegoela eta, 7.290 metro karratukoa eraiki dute Bidekurtzeta kalean bertan, Musakolan.

Gutziz bukatu gabe dagoen arren, 1989ko irailean sekzio batzuk bertara aldatu zituzten.

Pabilioi berriaren kostua, 800 milioi pta.koa. Hortxe joan da gaurko eta etorkizun laburreko inbertsioen kopururik handiena. Gerentearen hitzetan, hemendik aurrera batz bestea ehun milioi pta. emango dira urtero berrikuntzatan.

Belaunaldi berriak ere heldu dira dagoeneko enpresara. Alde batetik Jose Antonioren seme-alabak, Esteban, Igor eta Aintzane. Bestetik Jose Mariaren semea, Jose Mari hau ere. Seguruenik, biharko egunean eurek izango dute zeresanik JMAK izango duen bilakaeran.



1962ko inagurazioa: Korbataz Alejandro, Joxe Mari eta Jose Antonio. Bedeinkapena ematen Don Jabier

On Jose Mariaren itzalpean...

On Jose Maria Arizmen-diarrietaren itzala ez da, gero, kooperatiben mundura mugatu.

Horren lekuko, Jose Mari eta Jose Antonio Altuna.

Bi anaiek ikasi ere ikasi zuten enpresaren munduan. Iana eta diruaz gain, beste zerbaite ere bada-goela; batez ere langileak, eta era berean, baita inguruko gizartea ere.

Enpresaren funtzionamenduari dagokionez, badago Altuna anaien negozioan zer azpimarraturik.

Sartu Bidekurtzetako pabilioietan, eta gazte mordoxkarekin egingo duzu topo. Gazte asko, behin betiko kontratuak edukitzeak ematen duen lasaitasunaz.

Ez hori bakarrik. Duela hiru

hilabete, JMAK elbarritu fisiko eta psikikoei lana emateari ekin zion, gaur egun horietako seik bertan dihardutelarik.

Hemendik gutxira Mikel Otxoa ere hantxe izango dugu; eta gurpil-aulkiak suposatzen duen traba gainditzeko, eraiki berria duten pabilioian hainbat arrapala jarri dituzte. Mikelen joan-etorriak nolabait errazteko. Horrez gain, harentzat egokitutako komuna egitea ere kontutan hartu dute.

Kutsadura industrialaren ondorioak jende guztiaren ahotan dauden garaian, gainera, ikustekoak dira eraikuntza berriko



depuragailu sistemak. Alde batetik, nikel-ura depuratzeko makina, hamasei milioi pta. l'erdiko kostuaz; eta bestetik, olioia eta bestelako hondakinak garbitzen dituen, hau hogeitamar bat milioitan erositako.

Gizarte bizitzan ere aski ezagunak ditugu Altunatarrek; besteak beste, 'Txatillo' Arrasateko Alkate izan genuen urte askotan zehar. Eta galdetu San Frantzisko Xabier Ikastolan, batek baino gehiok eman dezake JMAREngandik jasotako dirulaguntzen konu.

On Jose Mariak Arrasaten utzitako itzala, beraz, ez da kooperatibismora mugatu. Horren lekuko, Alejandro Altunak 1942an sortutako enpresa, JMA, ezohizko Elkarte Anonimoa.

**X. GOROSARRI eta
M. L. TROJAOLA**

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxeba. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67
San Jose Policlínica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

BRANKA

jatetxea

Eguneko menua eta karta

HANKAPALU EGUNA



BERGARA 1990

Maiatzak 25,

- Gaueko 10.30etan: MASKARADA taldea "Akerlarru" lanaz.

Maiatzak 26,

- Eguerdiko 1ean: GOLOKA taldea "Makina transformatzailea"
- Arratsaldeko 6etan: KUKUBILTXXO taldea "Umeak gara, eta zer"



Eusko Jauriaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala

“Gure artean ez dago komunikaziorik”

Andu Lertxundi

Andu Lertxundi euskal idazle oparoenetakoa dugu. Dagoeneko 45 liburu idatzi ditu, literatura, testu-liburu, etab.en artean. Bere gelan idazten omen du beti, baina mahaia lekuz aldatuz liburu bakoitzerako. Idaztea nolabaiteko erokeria omen da eta mania hauek erokeria horren sintomatologia.



Andu Lertxundi

— Zein maila du euskal literaturgintzak?

— Literaturaz hitzegitea baino nahiago dut idazleez hitzegitea. Nik ezagutzen dudan neurrian, idazle batzuk badaude Estatuan, Katalunian eta Frantzian oro har egiten den literaturarekin, parekatzeko lotsarik ez dutenak. Egia esanda, ez dira asko idazle horiek. Orain, homologagarri hitza ari da modan jartzen. Homologagarri esan nahi du beste hizkuntza batera zein den itzulgarria, zein den hizkuntza horretan funtzionatuko lukeena, etab. Dudarik ez dago Bernardo Atxagak demostratu duela homologagarria dela. Ramon Sarzaibitoriak ere, hori lortu zuen. Jose Agustin Arrietaren zenbait lan ere homologa-bleak dira. Poesian, Juan Mari Lekuonaren poema asko ere bai.

— Entzun izan da euskaraz zerbait idaztea nahiko dela norberaren lana argitaratuta ikusteko. Ados al zaudete horrekin?

— Bai, zoritxarrez hala gertatu izan da. Hala ere, uste dut gero eta gutxiago gertatzen ari dela, argitaletxeak gero eta gehiago ari direla galbahea jartzen.

— Bernardo Atxaga, esaten den bezain garrantzitsua al da?

— Nik Bernardo Atxaga fenomenoaz hitzegingo nuke. Gogoratzen naiz Premios Nacionales delakoak antola-

tzen hasi zirenean, erakunde galego, katalan eta euskaldunekin harremanetan jarri zirela, ni zenbait bileratan egon nintzen eta horrelako sari bat euskaldun batek irabazi baino lehen 50 urte pasako zirela esan nuen. sei-zazpi urte pasa direnean, inork espero ez zuenean, euskal idazle izandako batzuk euskal literaturarik ez dagoela esaten ari direnean, horrelako fenomenoak gertatu da. Eman zaion boom-a erreakzioa izan da. Ez da Bernardo Atxaga fenomenoa, herri guzti honen fenomenoa baizik. Gure herrian gorabeherak gertatzen dira eta irakurtzen ez duen jendea ere harrotu egin da.

“Nik beti erreibindikatu dut idazle izan naizela. Beste gauza guztiek...”

— Idazleez hitzegin diguzu eta irakurleez? Zein eritzi duzu euskal irakurleagoaz?

— Nik uste, euskal irakurleagoa ez dugula ezagutzen.

Gure irakurleagoaren zati handia irakurleago tenporala da. Euskaltegi edo eskolatik pasatzen den irakurleagoa. Beharbada bost urtetan irakurtzen zaituena, bost urte pasa ondoren, eskola edo euskaltegia utzi ondoren, abandonatu egingo zaitu.

Irakurleago fidela, aldiz, gutxi dago. Nik nahiago nuke irakurleago fidel horretaz hitzegin, baina hain zuzen ere,

gehien interesatzen zaiguna da ezezagunena. Bildur naiz irakurleago hori, neurri handi batean, 30-40 urtetako belau-naldikoa ez ote den.

— Irakurleagoa ezagutu egin behar al da?

— Ez, irakurleagoa ez da ezagutu behar, baina bai irakurleagoaren nondik norako literarioak.

— Zuk literaturan, irakurleagoaren, zineman, kaze-

taritzan ere egin duzu lan. Zein alor duzu atseginen?

— Nik beti erreibindikatu dut, idazle izan naizela. Beste gauza guzti horiek, bi arrazoi-rengatik egin ditut. Bata eta nagusia, euskara bera izan da, momentu bakoitzean, gertatu diren gauza batzuekin konprometitu egiten zara, egunkari jakin batekin, ikas-tolekin...

Bigarren arrazoia, behar ekonomikoak izan dira, ni idazle izatekin ezin naiz bizi eta beraz, behar ekonomikoek bultzatu naute nolabait gauza horiek egitera.

— Liburu batek zure eritzi zer behar du ona izateko?

— Ona arrazoi askorengatik izan daiteke. Zientzia gizona lasaitzeko egin dagoen bezala, artea gizona larritzeko da. Liburu batek ona izateko, bere buruaz eta bere existentziaz sortarazi behar dizkio galderak.

Bestalde, zalantza desberdina izango da pertsona desberdinentzat.

— Zure liburuez besteek izan ditzaketan eritzi garrantziaz ematen diezu?

— Bai, erreflexionatzeko balio izaten didaten gauzetan. Liburuari buruzko eritziak direnean, eta gainera ofizio-koak baldin badira, jaramon handia egiten diet. Zoritxarrez, gure artean komunikazio oso gutxi dago.

Nik zer nahiago nuke, nire azken nobelari buruz, nik idatzi dudan nobelarik onena kontsideratzen dudana, Carlari buruz, alderdi onak azpimarratu izan balira edo txarrak jipoitu izan balira. Baina inork ez du ezertxo ere esan eta erabat desaperzibituta pasatu da. Hau izango da gure egoera, baina nik ez dut uste bat ere logikoa denik.

Oñatiko IV. Trialsin naturala

Datorren igandean, maiatzak 27, Oñatiko 'IV. Trialsin naturala' jokatuko da San Lorenzo auzoko zirkuitoan, Txantxiku Pedalada Elkartea eta Oñatiko Udal Gazte Batzordearen ardurapean.

Hasiera batean proba apirilaren 22rako programatu bazen ere, orduko euri jasak medio, antolatzaileek atzera egin behar izan zuten.

Horrela, igande honetan goizeko 10.30etan emango zaio hasiera txapelketari. Parte hartzaileek zortzi esparru ezberdin gainditu beharko dituzte, oro har lur, ur eta harkaitz gainean ibili beharko direlarik.

Adinak kontuan hartuta, zortzi kategoria ezberdinetan banatuko da proba, alebinetatik hasi eta elite mailaraino. Gogoratu, bestalde, Oñatiko Euskadiko III. Trialsin Txapelketarako baliogarria izango dugula.

Sasoi ederrean dago modalitate hau txantxikutarren artean. Horren



Ikuskizun bitxia igandean Oñatin

adibidetzat, uztailaren leian Arantzazun antolatuko duten Espainiako Trialsin Txapelketa!

█ Eskola Arteko Olinpiada

Larunbat honetan, Deba Garaiko Eskola Arteko Lehen Olinpiada jokatuko da Bergarako Agorrosingo kirol instalazioetan. Bertan, OHOKo 5. mailatik 8. mailararteko neska-mutilek hartuko dute parte, lau laguneko taldetan banatuta.

Besteak beste, herri-joku, atletismo, igeriketa, beisbol, badminton, eta abarreko txapelketak antolatuko dira. Ekitaldiari goizeko 10etan ekingo diote, eta arratsaldeko 6ak arte luzatu.

Deba Garaiko Udalak izan ditugu antolatzaile, Gipuzkoako Diputazioaren laguntzarekin eta Lagun Aroren babespean.

█ Kiroldegikoen oharra

Musakolako kiroldegitik deia luzatzen zaie teniseko kantxa alokatu nahi duten pertsona guztiei, bihar larunbata, maiatzaren 26a, eguerdiko 12etan kiroldegiko bulegoan egingo den bilerara hurbil daitezten.



Deba Arroa txapelketaren finalerdietan

Argazkian, Deba Arroa pilota txapelketaren finalerdietara heldu diren bikote arrasatearrak ikusten dituzue. Belauniko, Rubia eta Etxebarria alebinak; zutik, Korta eta Markos gazteak.

Astearte arratsaldean jokatu zituzten Iturripen finalerdi horien lehenengo partiduak.

Rubia eta Etxebarria 18 eta 15 nagusitu ziren, Ubera eta Elorza elgetarren kontra. Buelto neurrak, larunbat gauean Elgetan.

Korta eta Markosek, oster, 22 eta 15 irabazi zieten Mendizabal eta Aldazabal elgoibartarrei. Hauek, igande goizean jokatuko dute bueltako partidua Elgoibarren.

E D E L
TAPIZTEGIA

Gortina
Alfonbra
Koltza

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA

F A N C Y

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24

podiuma

**“Montxon”,
laino guztien
artetik**

Juan Luis Etxebarriak, ‘Montxonek’ barne-barnean darama hegaz egiteko grifa. *“Duela bost urte ekin nion Bidasoa Delta eskolan ikasteari. Egun politak, lagun gutxi ari ginen orduan saltsa honetan”.*

Urtebete ikasten eman ondoren, Arrasaten euren taldea sortzea bururatu zitzairen. *“Gauza kuriosoa; Federazioan talde bat onar dezaten, guxtienez bost kide behar dira. Gu lau ginen, Txosa, Tatxo, Jesus Nafarrate eta ni. Mirian, Txosaren neska-laguna nolabait engainatzea lortu, eta horri esker ‘Ikarus’ taldea jaio zen. Gaur egun hogeitau lagun inguru gara dagoeneko”.*

GORAKADA horretan badu Arrasateko Udalak zeresanik. *“Lokala utzi ziguten, eta horri esker badaukagu trasteak non gorde, eta taldearen bilerak non egin”.*

Era berean, egungo parapentean ‘boom’ a aipatu behar. *“Duela hiru urtetik hona jende askok ekin dio parapentean jauzi egiteari; seguraski delta-hegoa baino errazagoa delako, eta praktikoagoa. Hegaz hobeto egiten da deltarekin, baina hogeitamar kilometro gora duen armatosteaz mendi puntara igoitea... gainera, ez dakit, narrukoak askosaz gogorrak izaten dira delta-hegoan parapentean baino, kolpeak arriskutsuagoak”.*



Sarritan entzun ohi da txoro xamarrak direla kontu hauetan sartuak ibiltzen direnak. Montxonek, ordea, ez du hala pentsatzen. *“Begera, nik ez dut inoiz suizidarik ezagutu. Gauza bat esango dut bakarrik, hegaz egitera irteten garen guztiok, hurrengo egunean ere hor egon nahi dugu, bizirik eta hegaz egiten. Noski, arriskuak daude, asko. Horrexegatik, errespetu handiaz jokatu behar da hemen. Beti taldean irten, edozein egoeratan lagundu zaitzaketan lagunekin. Eta batez ere, baldintza guztiak ondo aztertu, eta egun batean, arrazoiren batengatik ezinezkoa bada jauzi egitea, ez erokeriarik egin eta etxera oinez itzuli”.*

Bukatu aurretik, bidea urratu dutenentzat oroitzapen hitzak. *“Batek Eli Bolinaga, huraxe izan genuen egiazko aitzindaria Orduñan bizia galdu zuen arte. Eta bestetik Txosa. Duela hiru urte ikaragarriko zartakoa hartu zuen Kurtzebarrrin, baina ordutik ere makina bat izerdi eman ditu kirol honen alde, izkutuan lan ugari eginaz”.*

■ **Urkuluko krossean rekorda**

Igande goizean jokatu zen Urkulun Ojala Zelaiko XII. Krossa, lau mailatan banatutako 36 korrikalarik parte hartu zutelarik. Guztira, 13 kilometro eta 400 metro bete zituzten.

Senior mailan, Jose Apalanza izan genuen nagusi, Pedro Zalama mondragoetarraren aurretik. Apalanzak, gainera, rekord berria ezarri zuen proban, 42 minutu eta 9 segunduko denboraz (Jausorok ezarritako rekorda baino minutu eta 21 segundu gutxiago). Gazte mailan, eztabaida batzuen ondoren, azkenean Carlos Mateo eta Jose Antonio Fuentes izan genituen nagusi. Kadete mailan, ostera, Aitor Etxezarreta; eta azkenik, beterano mailan Jesus Ezkibel mondragoetarra irabazle.

■ **Gipuzkoako erlojuaren-
-kontrako txapelketa**

Larunbatean jokatu da Eskoriatzan, Gipuzkoako erlojuaren-contrako taldekako txapelketa. Alde batetik alebin taldeek hartuko dute parte, eta bestetik hurrek. Arratsaldeko 4etan emango zaio hasiera probari.

Alebinei dagokienez, bi itzuli eman beharko dituzte prestatutako zirkuituan; guztira 6 kilometro eta 300 metro. Aipatu 9 talde izango ditugula lehiaketan.

Haur mailan, ostera, 21 talde irteeran. Hauek hiru itzuli eman beharko dituzte zirkuituan, denetara 9 kilometro eta 450 metro.

■ **Javier Calleja**

Espainiako kadete mailako trial-sin txapelduna dugun txantxikuarra, munduko txapelketarako selekzionatu dute aurren ere. Zorionak!

EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

**Monte
taberna**

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

**ARRASATE
PRESS**

77 05 65

Istripuak, autoen aseguru eta gazteak

“Expansión” aldizkarian irakurri berri dut aseguru-etxeak kezka aurkitzen direla auto-istripuek sortzen dituzten gastuen gorakadarekin. Badirudi istripuen kopurua gehitu egin dela, istripuek eragindako elbarritasunei dagozkien indemizazioak ere gero eta altuago jartzen dituztela epaileek eta, azkenik, Europarekin parekatzeak gastuen igoera dakarrela, autoak han garestiagoak direlako.

Kontua da aseguru-etxeen elkar-teak hainbat neurri prestatu dituela egoera honi aurre egiteko. Lehena, noski, tarifak igotzea izan da, azken hilabeteotan %20tik %35era bitartean. Gauzak horrela, azken bi urteotan aseguruaren primak bikoiztu baino gehiago egin dira, batzuek beste.

Aseguru-etxeen arteko tirabirak gutxitzea da hurrengo neurria. Zentzu honetan, “istripuen aitorpen



adiskidantzazkoa” orain bi urte sortzearen arrazoia konpainien arteko auzien kopurua eta gastuak murriztea izan zen. Orain bultzada berria eman nahi omen diote.

Bestalde, Trafiko Zuzendaritzarekin elkarlanean jarri dira istripuak gutxitu daitezkeen ahalegin bateratua egiteko, publizitate etabarren bitartez. Aseguruaren saltzaileei berriz komisioko murrizteko asmoa agertu dute.

Baina neurri guzti horien artean zorrotzena gidarien artean bereiztea litzateke, tarifa ezartzeko orduan.

Hau da, istripurik ez duen gidaria ona da, eta saria merezi duenez, deskontua egingo zaio ordaindu behar duen tarifan. Istripu ugari duen gidaria berriz txarra da, eta zigor gisa gaitzuzteko ezarriko zaizkio tarifan.

Eta gidari txarra izateaz gain 25 urtetik beherako gaztea baldin bada, edo ez zaio asegururik egingo, edota gidari normalaren tarifa bikoiztu egingo zaio. Legeak ez omen du bezeroen arteko diskriminaziorik galerazten, beraz...

Zenbaitek esango du hori ondo dagoela, gazteak bideetan nola dabiltzan ikusita. Gazteak bere aldetik pentsatuko du alukeria dela diru gutxi duenari gauzak garestiago jartzea. Seguru, irakurle, baduzula arazo honi buruzko zeure eritzia. Nirea, beraz, soberan legoke...

Mikel Intxausti

AE ELKORO

AE

Magdalena 29-31,
Tfnok: 79 18 86 - 79 45 99
ARRASATE

TB
HIFI
VIDEO-CLUB
ZERBITZU TEKNIKO

BLAUPUNKT
PANASONIC
PHILIPS
HITACHI
MITSUBISHI
SONY

AE


Garibai 10,

ETXEKO TRESNAK
ARGITERIA



SATELITE BIDEZKO TB
TELEBANAKETA

AZ

 tarjeta 6000

Tarjeta 24

CADUCA FINAL ▶

GK:

**GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA**

GK TXARTELA

Aldean eraman aldiro

Gipuzkoako Kutxaren
GK Txartela eraman behar
da aldean, eguneraturik
egoteko.

Gipuzkoako Kutxaren
Kutxazain Automatikoetan
erabateko erosotasunez
iharduteko.

Edozein dendantan aldean

eskudirurik eraman gabe
ordaintzeko.

AZ Bulegoetako zerbitzuez
baliatzeko.

Era automatizatuan eta
ordutegi zabalagoan.

Eta diru-arazorik gabe
bidaiatzeko.

GK Txartela.

Aldean eraman aldiro.

GK:

**GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA**

Euskararen mugak eta gaurko egoera

Euskarak geografiaz atzerakada handia egin du azken mendeetan, batez ere Araban eta Nafarroan.

Nafarroa: gaur Ipar-mendebaldean (Elizondo, Lesaka, Leitza... bakarrik egiten da, eta jakina, aurreko mendeetan, XIX. mendean hain zuzen, ia Nafarroa guztian egiten zen. Beraz, Nafarroan lurralde galtzerik handienak joan den mendean eta oraingoan gertatu dira.

Araba: oraindik atzerakada handiagoa egin du, galtzerik nagusienak XVIII. mendean gertatu zirela ematen du. Gaur Aramaioko haranean bakarrik egiten da euskaraz, eta Legutiano aldean zertxobait.

Bizkaia: Bizkaiko probintzian ia denean egiten da euskaraz, hiriburua, Bilboko erreka ezkerreko alde eta Enkartzazioak kenduta.

Gipuzkoa: Teoriaz probintzia

osoa jotzen da euskal hiztunen zonatzat. Baina, euskarak atzerakada handia egin du azken aldian, azken 50 urteetan aurreko 250 urteetan baino gehiago deseuskaldundu bait da.

Ikus daitekeenez, lur galtze handienak Hegoaldetik Iparralderantzako norabidean eman dira, eta Ekialdetik Mendebaldera Euskadi zeharkatzen duen mendi katearekin topogitean, honek frenatu egiten du erderaren erosio hau.

Halere, mendi kate honen iparraldean, barnean, erdal irlak daude: Irun, Eibar, Umieta, Donostia, Ermua... Arrasate bera ere nahiko ez-euskalduntzat jo dezakegularik. Zona oso industrializatuak dira hauek, eta ondorioz, etorkinen uholde handia jasan behar izan dute.

Gipuzkoan, Araban, Bizkaian eta

Nafarroan 1986an egindako erroldaren eta SIADÉ-ko elkarteak Iparraldean egindako ikerketaren arauera, zazpi probintziak harturik (Araba, Nafarroa, Gipuzkoa, Lapurdi, Benaflarroa eta Zuberoa) euskal hiztunen kopurua honako hau litzateke;

Euskaldunak: 953.802 %33,96

Erdaldunak: 1.855.161 %66,04

Guztira: 2.808.963 %100,00

Hemen haxe bakarrik esango dugu: huts handia litzatekeela euskararen balioa edo garrantzia gaur euskara dakiten edo euskaraz hitz egiten dutenen kopuru urritik neurtzea. Bestalde, on egingo digu Cristóbal de Villalón-ek hizkuntzei buruz esaten zuena gogoratzeak: "norbere buruaren nahiko etsaia da inoren hizkuntza norberarena baino gehiago estimatzen duena".

Atalataikoan

EKAINERAKO KULTUR EKINTZAK

ZINEMA

7an Alsino y el cóndor
14ean Pasiones en Kenia
21ean El verano de Aviya
28an Adios Moscu

ANTZERKIA

3an 8.30etan PARES Y NINES
9an 6etan TXIRRI, MIRRI eta TXIRIBITON
25ean 7etan (Kalean) TRAPU ZAHARRA "El vengador enmascarado"

MUSIKA

2an ESKIFAIA ABESBATZA 20.45etan Parrokian
22an MIKEL LABOA eta M-ak 10.30etan Monterronen



Arrasateko
Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Alkohola (III)

Alkohola duten edariak modu desberdinetan eta proportzio aldarretan xurgatzen edo absorbitzen dira. Eta xurgaketa-prozesu horretan, edariak duen alkoholaren proportzioak baduela zerikusirik ikusiko dugu.

Zenbat eta garbiagoa izan alkoholaren kontzentrazioa, urdailean gertatzen den xurgaketa orduan eta azkarragoa izaten zelako ustea zabaldua zegoen eta denbora luzean mantendu da.

Gaur egun, ordea, badakigu muga bat dagoela eta muga horretatik aurrera, alkoholaren kontzentrazio berak, xurgaketa-prozesua moteldu egiten duela. Alkohola azkarrago pasatzen da odolera %10-35 bitarteko kontzentrazioan diluituta dagoenean. Kontzentrazio handiagoaz, urdaileko paretean sorturiko narriadura edo iritazioarengatik,



xurgaketa mantsuago egiten da.

Guzti honek zera esan nahi du: ardoa, adibidez, ginebra baino edari ahulagoa izanik ere, azkarrago pasatzen dela.

Badago, gainera, garrantzizko beste faktore bat xurgaketa-prozesuan, eta janaria da hau.

Edan aurretik edo ondoren hartutako janariak badu eraginik alkoholo-

lak odolera pasatzeko abiaduran. Zenbat eta konplexuagoa izan janaria eta zenbat eta koipe, proteina, etab. gehiago izan, orduan eta geldoagoa izango da alkoholaren xurgaketa.

Era berean, gogora dezagun "burbuila" duten edariek -hau da, karbono-dioxido ugari dutenek: sodak, tonikak, kolak...- xurgaketa-prozesu hori azkarrago egiten dutela. Honek argitzen digu zergatik txanpainak erreakzioa azkarrago egiten duen beste ardo batzuen aldean, nahiz eta bere alkohol-porzentaiak ez izan handiagoa. Eta era berean, gaur egun modan dauden nahasketak -gasa duten edariekin egindakoak hain zuzen: kuba libreak, gin tonikak...- arriskutsuak gerta daitezke.


Eukeni/Arantxa



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura daukazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

Atxartetik etxera atxarterik atxarte

Gure aste honetako hankamo Gtzarenen titulua irakurri baduzue, jakingo duzue orainez gero gure gaurko gaia nondik nora doan. Goizean goiz jaikirik domekan, Atxarteraino joan ginen handik Arrasatera oinez bueltetako asmoz. Egun zantarra tokatu zitzaigun eta Atxarte inguruko parajeak ezin izan genituen ikusi lainoak ezkutatu zizkigun denak eta. Dena den, bidea markaturik dago eta Pol Polera ordu betean sartzen zara. Pol Poletik Anbotora bete hiru ordulaurden behar dira goizeko hamarretakoa dastatu ahal izateko. Gauean euri apur bat egin zuenez, jaitsiera labankorra espero genuen, baina zorionez ez zen horrela izan. Igoterakoan, kanteratik igo genuenez, laban zegoen pago arteko bidea eta arriskutsu hainbat lekutan, beraz, hobe da kanteratik



baino Anbotoko zelaitik igotea, lurra umel samar dagoenean. Gure bidaiari jarraituaz, Teila, mendira heldu ginen, baina handitxik ere Ibarra baino urrinago ezin genuenez ikusi, ez genuen denbora luze pasa bertan. Gesalibarrera jaisteko bidea aukeratu genuen Besaidera zihoana hartu beharrean, eta denboraldi bat jaisten eman ondoren, Parroia Baserriraino

heldu ginen, artean ere Gesalibar herrira heltzeko, baserri honen aurrean bidekurtze bat dago eta ezkerretara doana hartuz gero zuzen zuzenean Garagartzako kanteran sartzen zara, handik berriz etxerainokoa pasioa baino ez da. Guztira lau ordu t'erdi, eta goiza primeran pasatzeko aukera.

Hankamotz



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa
metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko
armairuak
Lan egiteko aulkiak

Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako
materiala.

Erreportaiak.

Ikastaroak

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

I R A T I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

IBARRA Garajea S.A.



Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

EBRO
NISSAN

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91

ARRASATE

M A

ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

Seguruetan aintzindari.

Egunetik egunera guztion beharrei egokitzen ahalegintzen garelako pertsona, familia, industria bakoitzaren neurria egunerakotutako poliza gama, errazak eta ekonomia guztietara moldatzen direnak ditugulako.

Poliza aintzindariak.

 **LAGUN ARO**
SEGUROS ASEGURUAK



Aste gazte

Dagoenekoz, Arrasateko 20ren bat gazte animatu da Lan-Ihardunaldietan eta Naturako Programetan parte hartzeko. Hauetako batzuk Parke Nazionalakera doaz (Ordesa, Delta de L'Ebre...), besteak Murcia, Valencia, Segovia, Ciudad Real, Tenerife, Tajo erreka eta abar. Guztioi, ondo pasa.

Bestealde, gazte asko (batez ere 15 urtekoak) plazarik gabe gelditu dira, bai udalekuetarako eta baita beste ekintzetarako ere, plazak segituan bete bait dira. Datorren urtean azkarrago mugitu beharko duzue.



Udalekuak

• Joan den astean aipatu genituen udalekuetako tokia badago finkatua: Maeztu (Araba). Bestea, berdin: 8 eta 11 urte bitartekoentzat, uztailaren 1etik 15era, Euskaraz, 13.000 pta. Plaza mugatuak.

• “VI. Ortzadar Saria” Argazki-Lehiaketa (Ordizia). Kolorez nahiz zuri-beltzez. Gai librea. Sariak: 20.000, 15.000, 10.000 eta 15.000 pezetako sari berezia “desnudo”rik onenari. Lanak aurkezteko epea: uztailaren 7a baino lehen.

• “Kontsumitzailearen Eskubi-deen aldeko Mundu mailako Eguna” Ipuin, Esaldi edo Lemak sortzeko Lehiaketa. Ipuinak: gutxienez, hiru orrialdekoak, gehienez, hamar. Esaldiak: hamar hitz gehienera. Modalitate bakoitzerako lau sari: 200.000, 150.000, 100.000 eta 50.000 pta. Lanak aurkezteko epea: ekainaren 30a baino lehen.

Udako unibertsitateak

• Estatu Espainoleko Unibertsitateek antolatutako udako ikastaroei buruzko informazioa Gazteentzako Informazio Bulegoan lor dezakezu.

Lehiaketak

• Artista berrien XXXII. Lehiaketa. 18 eta 30 urte bitarteko artista berri gipuzkoarrek parte har dezakete. 2 modalitate: pintura eta eskultura. Modalitate bakoitzeko, 500.000 pezetako bi sari. Lanak aurkezteko epea: maiatzaren 31 baino lehen.


• “Cafe Iruña” V. Kartel Lehiaketa (Tolosa). Nazioarteko Abesbatza-Lehiaketarako kartela aukeratzeko. Teknika librea. Neurriak: 75x52 zm. Sari bakarra: 100.000 pta. Lanak aurkezteko epea: ekainaren 15era arte.

Bekak

• Koru Zuzendaritzako hobekuntza ikastaro batean parte hartzeko 50 beken deialdia. Ikastaro hori Euskal Herriko Abesbatzen Federazioak antolatu du, 1990.eko irailean eta abenduan izango da. Epea: 90-5-31

Informazio gehiago:


Gazte Zerbitzuan, ☎ 79 09 00



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11



Fotokopiak
Enkuademazioak
Planoen erreproduzioa
Ofseta

Ferrerías, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

ETXEBIZITZAK

- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuek deitu 79 62 89 tfnora.
- San Andresen garajea alokatu edo erosiko nuke. Jabier 79 50 53
- Bikoteak errentan hartzeko teilatupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramaio kalea 4, etxabea etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 79 97 18.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 79 39 00 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 24 31 95 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikia edo teilatupea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 79 81 76
- Bi oheko logela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73
- Bikote batek teilatupea edo pisu txikiren bat hartuko luke. Hutsik balego hobeto. Tfnoa: 79 96 90.
- Cambrils-en (Tarragona) apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 metrora. Tfnoa: 945- 22 38 03 Natividad de Santiago.
- Alokatzeko pisua behar dut Arrasaten edo Aretxabaletan. Tfnoak: 79 13 95 eta 79 16 57 goizeko 9etatik arratsaldeko 2ak arte. Flor Tellez.

LANA

- Emakume euskaldunak umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 73 83
- Edozein lan egingo nuke. Tabernan, jabetxean, haurrak zaindu... Dei 79 15 35 telefonora.
- Pertsona euskalduna behar da ikastetxeetan eta etxez-etxe bideoak saltzeko. Baldintza interesgarriak. Interesatuak deitu 79 54 46 telefonora.
- Sukaldeko lanak egingo nituzke. Dei 79 43 93 telefonora
- Kontabilitateko klase partikularrak emateko pertsona behar da. Dei 9etatik aurrera 79 99 82 tfnora. Miren.
- OHoko 7. mailako neskatilari klaseak emateko pertsona behar da. Egunean ordu betez. Tfnoa: 79 83 68. Kati.
- 26 urteko neskek etxeko lanak egingo lituzke, orduka, bai goizez eta bai arratsaldez. Tfnoa: 77 04 97 Nati.
- Esperientzia duen neskek etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 97 58
- 19 urteko neska euskalduna prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuek dei tfno honetara: 79 54 79.
- Neska euskaldunak etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 21 09. Gauez.
- Latin klaseak ematen ditut. Interesatuek 79 50 88 Tfnoa deitu. Garbiñe.
- Neska euskalduna behar da Donostiako etxalde batean. Ez da bakarrik egongo. Soldata ona. Interna. Tfnoa: 40 00 86 bulego ordutan.

SALEROSKETAK

- R-12 TS autoa salgai. Interesatuek 79 33 43 Tfnoa deitu, arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Maleta, motxila eta poltsak, era guztietakoak salgai. Oso prezio onean. Nahi izanez gero, Aramaion San Martin Ikastetxean izango dira. Tfnoa: 945-44 50 04
- Bizikleta ia berria salgai. Reynolds 531 Mercier. Pieza gehienak Zeus. Talla: 58. 65.000 pta. Tfnoa: 76 32 69
- Alpen-Kreuzer "Allure" korro denda salgai. 20 egunetan erabilia. Tfnoa: 78 19 87 gaueko 9tik 10era. Mikel
- Amstrad CPC 6128 ordenadorea salgai. Disketa (3´´), 128 k., Kolorezko monitora, joytick profesionala (telemach), programak (datu basea, testo prozesadore...), 40 joku eta manualarekin. Tfnoa: 76 25 12.
- Bizikleta salgai. 10-12 urtekoentzat aproposa. Merketxo. Tfnoa: 79 31 04
- Bi bizikleta ditut salgai. Bata paseozkoa bestea karreterakoa. Tfnoa: 79 39 88

DENETARIK

- Irungo ikastolan kontratu flinkoaz lanean ari den andereño batek Arrasateko edo inguruko ikastoletako irakasleren batekin permuta egingo luke. Interesatuek dei dezatela tfno. honetara: 79 26 69
- Jo ta fuego sukaldariari ere. Kontuz txokolatea erre gabe. Pare bat zer? Besazer bat? Goñi.

ARRASATEN HILDAKOAK

Francisco Gonzalez de la Viuda
Maiatzaren 19an. 83 urte.

Ubalдина Gonzalez Rebolledo
Maiatzaren 20an. 82 urte.

Maria Biain Uriarte
Maiatzaren 20an. 81 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Famauen ahotik

Torrestarrak juergarako betik gertu



Jaime Zubialdea, "Torres" bere andriaz

Aitte aguazille, oso famosue

Torres aguazille gure aitte oso famosue zan, hak ordenie ipintten auen. Umick igual jolasien kalien bai eta, ze eitten dozue zueik umiok hemen, ala eskolara!

Hartu danak aurrien eta eskolara erueten zittuen.

Hala be, lanetik aparte oso alegria zan, behin karnabaletan aitta, tia Mikela, tio... Torrestarrak danak, nunbaiten ajentziau auien bela zahar bat eta ijittuck ebalten dauien moruko burdixe eta txakurre burdi azpixon zala portaloitik pasau zien ijittuen moruen igual-igual. Jentiek ezautu bez, ijittanuck zielakuen. Pasau eta gero baten batck, hi pentsetan juat horreik Torrestarrak ziela. Mondrauen oso famosuek zien Torrestarrak.

Tiok traje barrizax txorimalue eiñ

Gure kaletik, Maalatik zezenak urteten auen eta ba, gure etxetik, Torresenetik txorimalo haundixa erropakin bete-bete eindda, txintxilizka ipintteko kostunbrie auen.

Zezenorrek urteterakuen zokie jetsi eta txorimaluorrez jota egurre eitten auen.

APUR BAT POZTUTEKUEN...

Goizian sartu tabernara eta ateratzen naiz azkena. Egun guzian txurrutian ta ez zait betetzen barrena. Hau dok erari maitagarria neri gustatzen zaidana. Maria Jesus bihotzekua bete hamaxeigarrena.

Eta baten pasau zan ba, gure tiok erropa pillue hartu eta arka barruen sartu auela txorimalue eitteko. Halako baten, aiuntamentuek aguazillei einddeko urako trajie estreñetako asmuaz badoie aitte armaixure eta trajioi iñun be ez zala agiri. Orduen akordau jakon tiai, seguru tiok txorimalue eitteko eruengo auela. Juen da txorimaluoi ikusten, baiñe baten batzuk txintxilizka auen lekutik soltau eta erre kara botata. Erreka guztiok ebali eta azkenien hortxe etxe txikixetan topau nauen txorimaluoi, aittek estrañau be eiñ bako trajiaz. Hã izen zan ona ha!

Jaimek erredoble luzie, baiñe pregoie ahaztu

Pregoiek klase askotakuek izeten zien, baiñe alkatien pregoie izeten zan prinzipalena. Zerrajeratik urteteko ordue aprobetxauaz denpora bateko Garratzen estankuen onduen jotzen zan.

Behin edarra pasau jaten, ha zan ha golpie!, itxurie inportantie zan alkatien pregoioi eta zerrajeratik 12xetan danak prixe ka urteten abitzela, erredoble luzie jo nauen jentie neuana juntau zein. Halako baten akabau dot erredobloioi, ekin naz eskue poltsikuen sartzen eta, alkatien pregoioi falta, aiuntamentuko mahai gaiñien ahaztute. Batzuk barrezka, beste batzuk hasarre, takarraran alde eiñ auien danak etxera.

Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai

Zelebrequerixak

Antton Ezkerdo sartu zan medikuan etxian iletak darixola, eskuak ezkerreko alderdixan zittuela, aieneka batian.

— Hainbeste aspamenturik zer pasatzen jak, Ezkerdo? —medikuak.

— Gibe leko miña ero...

— Gibe leko miña? Eta ezkerrian miñ? Gibela eskumako aldian daok, baiña...

— Bai, baiña ni ezkertixa nok...

"Sarrapel" gaixorik eguala eta, Liandro bere laguna joan jakon bisittara.

— Ze diñok, Sarrapel?

— Hementxe. Ez nahi bezin ondo, baiña...

- Koño, ba ez hago hain gaizki be. Hanka bixak ohiak daukazek behintzat.

Hanka bixak ohian?

— Bai, Don Nikanor medikuak esaten jostak hanka bata kanposantuan duala hagola ta...

— Nik entzutie dotenez medikuak esate ei juek arda uak bizitza laburtzen dabela.

— Medikuak arrazoa jaukek. Konturatu najaok ni eran bareko egunak luzeaguak direla.

— Zer esan dok? -medikuak.

— "Hidropesia" daukadala.

— "Hidropesia ez, hik "ardau-presia" dauk.

Juan Martin Elexpuru

Felipe Arrizabalaga

aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412



U

rebetete egin zuen On Jose Maria Arizmendiarrietak Union Cerrajerako *Aprendices* eskolan.

Bertako ikasle guztiak langileen semeak ziren, eta hamarreko taldetan banatuta ikasgeletan.

D. Jose Mariak zabaldu egin nahi izan zizkien *Aprendices*eko atea herriko gazte guztiari, ez bakarrik langileen semei. Union Cerrajerako zuzendaritzak, berriz, onartu ez eta Barinagako abade

gazteak guraso eta beste herritar askoren laguntzaz, Eskola Profesionala sortu zuen Biteri Fundazioaren eraikuntzan, gaurko Biteri etorbidean dagoen aparkalekuan.

1934eko urriaren 10a zen. Montiano maisua eta Union Cerrajerako zenbait langile eta ofizialez osatu zuen irakaslegoa. Argazki honetakoak dituzue, hain zuzen, Arrasateko Eskola Profesional sortu berriaren lehen irakasleak.

Zutik, ezkerretik hasita, Gaspar Ezkurra, Prudencio Osinaga, Anton Balerdi eta Ignacio Palacios.

Jarrita, ezkerretik, Jose Lasa, On Jose Maria Arizmendiarrieta eta Mariano Montiano.

Hogei ikaslerekin hasi ziren, denak mutilak. Izan ere, 1955ean etxeko lanak eta, irakasten hasi ziren neskontzat, eta 1958a arte ez zen neskez osatutako lehen taldea eratu.



OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: *Otalora 1ean*
Biltegi berria: *Meatz-Erreka*

ARRASATE



ALCIZCAN

S. Migel jatetxea

Egunero goizeko
7etatik zabalik

Tfnoa: 77 04 94 / 79 83 93

Begi-flash



ENBIDOTik hartua, ELKAR-en baimenarekin

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

Eslu
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

Harrikadak!

Biziaren momenturik onenera heltzean, gizaki askok jasaten dituzten harrikadak direla medio, pertsona bat guztiz desmoralizatua edo lur jota gelditzean, zer egin?

Inork ez du galdera hori erantzungo eta beharbada norbait kapaz izaten bada erantzuna emateko, beteko ahal du erantzunean dioena?

Desmoralizatua dagoen pertsona horrek sentitzen duena erraza litzateke azaltzea. Lagunekin egotean, lehoi talde handi batetako lehoi marjinatua edo eta txori saldo batetako txoririk ganorabakoena...

Zer dala ta zer dala biziak eman horrelako

harrikada

txarrak?

Honek sortzen dituen arazoak asko nabaritzen dira gure artean, zergatik? pertsona baten morala lurreraino heltzen delako eta ez da bera bakarrik arazoa honetatik ateratzeko gai, familia eta lagunak ez diote jaramonik egiten eta berriz lehoi talde batetako lehoi marjinatua sentitu eta berriz txori guztietako ganorabakoena eta berriz lagunak marjinazio hori tapatuko duen aitzakia tonto bat jarri,

tontoa!, eta pertsona horrek orduan ez du etxetik urtengo eta errepresioak murgilduko dira bere buruan barrena eta gaizki, oso gaizki sentitzen hasi eta ia eskeletoaren antzera gelditu nerbioak janda, suak basoak jaten dituen bezala eta azkenean hiltzeke zorian gelditu ia, ia eta orduan bai, noski, beti gertatzen den bezala, zer?

Zure lagunak lagunak minena bihurtzen zarela, hori bai tristea!!

eta

orduantxe beti gainean edukiko dituzula, orain zutaz asko arduaratuko direla, beti horrela ibiliko balira bezala, jendearen aurrean ondo ikusiak izan daitezten, dirudunak egiten duten gauza simetrikoa.


Hauek dira hauek pertsonalitate gabeko pertsona nazkagarriak eta gainera mundu honetako arazorik mingarriena

negargarriena

txarrena.

Konpongarria!!!!

Saski-maski



**ASEGURU
ARTEKARIA**

Zure esanetara gauzkaku!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE

■ **Ertzainaren berezkotasunik eza.** Ertzainak KAS bloketik jaso dituen mehatxuak direla eta, Antton Aranburu kazetariak ertzain baten lekukotasuna eraman nahi izan zuen Euskadi Irratiko "Goiz Kronika" irratsaiora.

Ertzaina euskalduna zen, Ondarrukoa, eta orain gogoratzen ez ditudan izen-abizenez aurkeztu zen. Horraino dena ondo, eztabaidari arazoa barrutik bizi duen baten lekukotasuna ekartzen zion eta.

Hasi zen, baina, elkarrizketa. Anttonek galdetu eta ertzainak, poliki eta bat ere huts edo zalantzarik izan barik, erantzun. Solasak aurrera egiten zuen bitartean geroz eta garbiago iruditzen zitzaidan ertzainak idatzita zeuzkala erantzunak, haren aitopeneak eskaini zezaketen lekukotasuna aurrez prestatutako gidoiaren lerro zurruntan urtzen da.

Irratian, edozein eratako lekukotasunen interesa elkarrizketatuaren berezkotasunean oinarritzen da. Erantzunak aurretik idatzita daudenean galdu egiten dute bertute hori eta beste zerbaitek pasatzen dira.

Gaizki desizoztutako arraina nekez emango da freskotzat. Arraina izaten segituko du, hori bai, baina inoiz ez freskoa.


■ **Giroa, Mundiala eta Tourra.** Joan da Espainiako Vuelta eta Pelloren azken orduko ametsa mila malko garratzetan ito. Tamalgaria, zeren oso karrera ona egin izanaz gain, oparitu zigun erlojuaren aurkakoa zoragarria izan zen.

Italiako Giroa euskaraz segitzeko aukera dugu ETBri esker, bai zuzenean arratsaldez edo laburpena gauetan.

Dagoeneko, bestealde, futbol aurremundiala ari gara bizitzen. Erreportaia bereziak telebistan, aparteko koademiloak prentsa idatzian eta nik dakita zer gehiago! Txapelketa bi astebeite barru hasten denean izango dira kontuak, izan ere, Joko Olinpikoekin batera, hau beti da mundu osoan zehar ikusle gehien erakarri ohi duen ikuskizuna. Bideoek destajura egingo dute lana. Eta apenas atsedetik barik, Frantziako Toufra, aurten nazioarte mailako tropeleko figura guztiek. Kirol betekada harrapatzeko arriskua.

Joxe Aranzabal

bideoak



Hareak estalitako istorioak

Kasu askotan, istorio mitologikoen atzean gertakizun historiko garrantzitsuak gordetzen dira. Arkeologo eta historiadoreak istorio horietaz baliatu izan dira maiz aurkikuntza arkeologiko eta historiko berriak egiteko.

Bideo-serie honetan, aintzinako herri batzuen kultura, historia eta sinismenak azaltzen dira.

OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



gusto baduzu


■ **Kirolak:** Gogoratu, ETBk egunero emango dituela Italiako Giroaren azken kilometroak.

Txirrinduaz gain, saskibaloiak eramango du kirol emanaldien pisua. Alde batetik, NBA ligako finalerdietako neurketa, larunbatean, 16.45etan. Bestetik, Bartzelona eta Joventut taldeen arteko ACB ligako finala. Emozioa barra-barra.

■ **Lou Reed:** Azken boladan ETBk igande gauetarako prestatu dituen musika emanaldien barruan, honako honetan Lou Reed-en txanda izango dugu. New Yorkeko rockeroa aski ezaguna dugu gure artean, eta ugariak dira hemen dituen zaletuak. Eurentzako, beraz, aukera ederra igande gaueko 23.30etan.

■ **Prince of the city:** Sidney Lumet-ek zuzendutako filmea, asteazkenean, gaueko 21.10etan. Antzezleak Treat Williams, Jerry Orbach eta Richard Foronjy.

Danny Ciello, narkotiko ikerketa sailaren buru da. Halere, kargu horren azpian polizi maltzurra izkutatzen da, "Hiriko printzea" izeneko talde gaizkilearen kidea hain zuzen ere.



Xabier Agirre mediku donostiarra HIESAri buruz hitz egiten izan genuen *Zenbat buru, hainbat aburu* mahainguruan. Xabier goizetan UZEIn egoten da lanean, eta arratsaldez kontsulta pasatzen du. Esan zigunez, ekainaren erdialderako UZEIk Medikuntza Hiztegiaren hirugarren alea kaleratuko du.

aste ko

PROGRAMAZIOA

28 ASTELEHENA

20.00 **Berriak** Koldo Rodriguezek aurkeztua
20.25 **Mondrasport** Jon Anduezak zuzenduta.
21.00 **Euskal Herriko Haur Kantarien Txapelketa**. Donibane Lohitzunen jokaturako finalaren erreportaia
Berriak (errepikapena)

29 ASTEARTEA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.25 **Mondrasport** (bezperakoa)
13.00 **Euskal Herriko Haur Kantarien Txapelketa**

30 ASTEAZKENA

20.00 **Berriak** Koldo Rodriguezek aurkeztuta
20.25 **Zenbat buru, hainbat aburu, mahaingurua**. Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzenduta. Gaia: Irtenbide profesionalak gure bailaran.
21.10 **Berriak** (errepikaldia)

31 OSTEGUNA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.25 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)

1 OSTIRALA

20.00 **Berriak** Koldo Rodriguezek aurkeztua
20.25 **Erretratoa**. J.R. Elortzak aurkeztua. Gonbidatua, Roman Balanzategi medikua.
21.00 **Musikantoi**. Patxi, Pepe, Asier eta Mikelek aurkeztua. Herriko musika taldeak eta mundu zabaleko talderik onenak
Berriak (errepikaldia)

2 LARUNBATA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.25 **Erretratoa** (bezperakoa)
13.00 **Musikantoi** (bezperakoa)

Arrasate Telebista ere ikusmin galanta sortu du bazterretan eta asko dira gure platoa eta, ikustera datozen bisitak. Aste honetan Bergarako Udal Euskaltegiko ikasle hauek egin ziguten bisita. Kontxi Umerezekin etorri ziren.



Berandu etxeraten zareten horientzat, astelehen, asteazken eta ostiraletako *Berriak* albistegia errepikatzen hasi gara, egun horietako emisioen amaieran. Arratsaldeko zortzietan ikusterik ez duzenok, bada, aukera berria. Ez horregatik!



LURRINGEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

ALTUNA

Lurrindegia
bisutegia
drogeria

Maalako Errebala
Tfnoa: 79 14 23



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Ez zaitez bizi zerorrek hesitako lau ideien barruan, nahigabetu egiten zara eta. Mundua zabal da eta aukerak ugariak. Lan praktikoak aurrera egin ahal izateko kemena sendotuko dizu indar faltan bait zabilzta.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Euriarekin zizak azaltzen diren moduan azalduko dira bekozbeakoak familiarentako harremanetan; saiatu eztabaidarik ez sortzen. Ez bilatu zoriarik ameskerietan. Osasunez gogor xamar zabilzta baina makaltzeko bidean.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Kexak alde batera laga eta zauden egoeran onartu, zorokeria bait da hainbeste gauzaren beharra izatea zoriotsu izateko. Lanean intuizioz jokatu. Osasun egoera onean izango zara.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Adiskidetu zaitez senitartekoekin, eskuzabala izango bazara ez ibili zergatien bila, sentiberatasuna ezin bait daiteke neur. Osasuna hobetuz doa, baina maitasunean kilikolo segitzen duzu.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Sutan jartzen zara haserretzen zarenean eta zeurea baino ez duzu ikusten; gaizki pasako duzu horregatik. Musika akuatikoa entzuteko orduan ondo dago sentikorra izatea baino bizimodua aurrrera ateratzerakoan makaldadea adierazten du.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Ez zaitez ibili irudikeriatan, inork ez bait dizu merezi duzun arretarik ukatu. Bizitza bera, ez da kezak eta zalantzak sortzen dituen, berrikuntzak eta norabideak eskaintzen dituen baizik.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Ez izan inongo harremanik ezezagunekin, ingurukoekiko harremana ezereztatu bait lezake. Daukazaruri etsi, bai lanean bai jende artean. Ideia ugari bururatuko zaizkizu; gorde itzazu, ezingo bait dituzu denak batera gauzatu.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Bi aldiz pentsatu gabe "baietza" eman behariko diozun eskaintzaren bat suerta liteke lan arloan; gainontzean, bai emozionalki, bai osasun aldetik, gorabehera handiak izango dituzu.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Behin ondo pentsatuz gero ez da dudamudatan ibili behar izaten; aurrera! denbora alperrik galtzen egon barik. Ez itzau nahas bizimodu intelektuala eta pertsonala.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Aste hasierako ilargiaren egoerak ez dizu batere onik ekarriko; ez zaitez ibili inor liluratu nahian. Zure ingurukoren bat larri baldin badabil, irteeraren bat bilatzen saiatu zaitez.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Negozioren batean hastekotan bazaude, ez ahazu lau begik bik baino hobeto ikusten dutenik. Laguna eta biok jeloskor ari zarete jokatzeko eta eguneroko leloa bihurtzen ari zaizue.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Harreman sentimentalei dagokienez ez ibili dena argitu nahian, ez bait da ikerketetan ibiltzeko unerik aproposena. Talde lana eragingarria izan liteke. Osasun aldetik gorabeherak izango dituzu.

EUSKAL FAMILIETAN

IKASI !!

Euskara ikasten ari zaretenontzako egonaldiak euskal familietan.

Informazioa eskuratu nahi baduzu jo Udaletxeko Euskara Zerbitzura.
Tfnoa: 79 09 00



Edonora zoazela ere,



eraman ezazu ongien
datorkizun dirua.

AURREZKI-KUTXA
MUNICIPALA



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL

Kanpainordea, 2. Tira: 79 70 96 73 97 54



Esneduna

Musakolako Eskola Publikoko argazkigintza taldekoek eina

*Diru asko ala gutxi,
ez ondotik pasa,
ez begiak itxi.*

*Sartu, ikusi...
eta komeni bazaizu erosi.*

Santamaina kalea 36, Tfnoa: 79 92 62 Faxe: 791489 ARRASATE



Zabalik gaude!!! Erakusketa berria Santamainan